



**EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK ONESTEN BAITIRA ETA LANGILEAK LAGUNTZEKO TEKNIKARI/LAN PRESTATZAILE KATEGORIAN LAN POLTSA BAT SORTZEKO KANPOKO DEIALDI BIDEZKO HAUTAKETA PROZESURAKO DEIALDIA EGITEN BAITA**

Orientazio Departamentua indartzeko beharra antzeman denez, beharrezkoa da lan prestatzaile izateko lan poltsa sortzeko hautaketa prozesua hastea.

Langileak laguntzeko teknikari/lan prestatzailearen lan poltsako eginkizunak, erantzukizunak eta bertara sartzeko sistema Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 29ko bilkuran onetsitako lanpostuen deskribapen eta balorazio memorian eta ebazpen honekin batera doazen oinarrietan jasotakoak dira.

Langile publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak kasuan kasuko hautaketa prozesua irekitzea ezartzen du. Haren bidez bermatuko beharko dira, besteak beste, deialdiaren eta haren oinarrien publikotasun printzipioak; hautaketa organoetako kideen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa organoen jarduketaren independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, hautaketa prozesuen edukiaren eta garatzeko eginkizun edo egitekoen arteko egokitzapena, eta arintasuna, betiere objektibotasunari kalterik egin gabe.

Horregatik guztiatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hau



#### **EBAZTEN DUT:**

**LEHENENGOA.-** Oinarri orokorrak eta espezifikoak onestea, bai eta hautaketa prozesua arautuko duten eranskinak ere, Orientazio Departamentuan, Giza Baliabideen eta Orientazioaren Arloan, langileak laguntzeko teknikari/lan prestatzailearen lan poltsa bat sortzeko, kanpoko deialdi bidez.

**BIGARRENA.-** Onespina ematea kanpoko hautaketa prozesuaren deialdiari, aipatutako lan poltsan sartzeko. Bestalde, eskaerak eta agiriak aurkezteko epea oinarri orokorretan adierazitakoa izango da.

**HIRUGARRENA.-** Aurreko xedapenean adierazitako hautaketa prozesuko hautaketa organoa izendatzea:

**A. Hautaketa organoaren osaera**

Lehendakaria: Indesa 2010 SLko giza baliabideen eta orientabidearen zuzendaria edo haren ordezkaria.

Bokala: Indesa 2010 SLko finantza zuzendaria edo haren ordezkaria.

Bokala: Indesa 2010 SLko orientazio teknikaria edo haren ordezkaria.

**B. Idazkaria**

Hautaketa organoko idazkaria Indesa 2010 SLko idazkari kontuhartzailea izango da, edo haren ordezkaria: idazkariak ez du botorik izango.

**C. Batzordearen ordezkariak**

Enpresa batzordearen ordezkari bat egon daiteke, hitzarekin baina botorik gabe.

**LAUGARRENA.-** Ebazpen hau argitaratzea korporazioaren web orrian, lantokietako iragarki tauletan, eta ebazpen honen jakinarazpena bidaltzea batzordeari.

Gasteiz,

Sin. Ander Eguidazu Aldalur  
INDESA 2010 SLko zuzendari-kudeatzailea